



850/2019 EBAZPENA, ABENDUAREN 10EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ AGINTZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO WEBGUNEAN ARGITARATZEA 1. ETA 2. LEHENTASUNETAKO 2018KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDA BEHIN BETIKOAK, MODALITATE HAUETAN: LANPOSTU HUTSEN ZERRENDA ETA ORDEZKAPENEN ZERRENDA, EMAGIN, FISIOTERAPEUTA, LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA ETA ZELADORE KATEGORIETARAKO, ETA ERA BEREAN, 3. LEHENTASUNETAKO ZERRENDAK EMAGIN KATEGORIAKOAK.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakia (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6a), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena. Horren bidez arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak.

320/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu ziren 1. eta 2. lehentasunetako 2014ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian araututako irizpideen arabera ordenatuak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (Familiako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT kategorietarako izan ezik).

321/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez argitaratu ziren 3. lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, A.1. lanbide-taldeko (Fakultatibo Medikoak) eta B.1. (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeko kategorietarako (Familiako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT kategorietarako izan ezik).

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzea 1. eta 2. lehentasunetako 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Emagin, Fisioterapeuta, Laborategiko Teknikari Espezialista eta Zeladore kategorietarako, eta era berean, 3. lehentasunetako zerrendak Emagin kategoriakoak.

Zerrenda horiek 2019ko abenduaren 11n sartuko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 10ean


María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD